

Modernaren gaindosia

Joxean Agirre

Txertoek pertsonalizatuagoak behar lukete. Medikuntza domestikokoan ere nik kopuru homeopatikoa erabiltzen ditut. Buruko minaren kontra, esate baterako, Termalgin laurdenak, osoak kolokatu egiten naudelako. Pfizerren bi txertoak hala moduz eraman nituen. Moderna txoroagoa zela entzuna nuen eta, joan den astean hirugarrena marka horretakoa jarri zidatarik, gau osoa igaro nuen begirik itxi gabe eta, okerragoa dena, literaturari buruzko amesgaiztoekin.

Egia da Durangoko nobedadeak irakurtzen harrapatu ninduela. Gaueko hamabietarako erabakita nuen Eider Rodriguezena nik aspaldian irakurri dudana kontakizunik indartsuena zela,

gogorra baina aldi berean ederra eta samurra eta, literatura mota hori Frantzian hain errotua dagoenez, alderaketak egiten ibili nintzen. Ordu bat alderako Kirmenekin nenbilen eta bere lana ederra zela erabakita ere, Rosika Schwimmerren biografia pixka bat urruna egiten zitzaidalako edo, su-karraren igoaldi horietako batean pentsatzera iritsi nintzen ez ote zuen emakume hori aukeratu idazleak AE-Betan duen balizko publikoari begira eta amorrua eman zidan edo inbidia, besteok goizeko ordu biak aldera seigarren garagardoa eskuetan dutela gerturatu eta «hire azkena irakurri diat eta gustatu zaidak» esaten diguten mutilzaharrentzat idazten baitugu.

Edorta Jimenezen “Nikole” ere hasita nuen eta amesgaiztoak izan nituen Sabino Aranarekin basurdetan nenbilela Sukarrietako artadietan eta su-iskiluak huts egiten zidala piztia horietako baten aurrean. Eskerrak Jon Maiaren liburua ere eskura nuen eta Gariren ahotsa imitatuz “Zaharra zara Bilbo” kantatu ondoren (zer gauzak egiten diren amestetan), burukoari muxutxuek emanez hartu ninduen loak.

Dena pasatu da, baina badakit Modernaren gaindosi bat eman zidatela eta hurrengoan, hemendik sei hilabetera, laugarren txertoa jartzeko deitzen ditenean, dosi pediatrikoa nahi dudala esango diot erizainari, nik buruko minaren kontra ere Termalgin laurdenak hartzen ditudalako. •

Ziurtasunak

Amagoia Mujika
Telleria

Minbizia duten haurrekin lan egiten duen psikologo batek esan didanez, gurasoei aholkatzen die haurrari egia esateko eta ez jartzeko epe zehatzak, inoiz ez baita segurua horiek beteko direnik. Haurraren adinaren arabera mezua moldatu behar bada ere, funtsean aholkatzen du kontatzeko gaixotasun larri bat daukala, medikuek bera sendatzeko ahalegin guztia egingo dutela, etxekoak eta lagunak ondoan izango dituela eta luze joko duela. «Lau hilabete iraungo du» esan eta gero hilabeteak zazpi badira, haurraren frustrazioa latza izan daiteke. Edo, «astelehenetan etorriko gara erietxera» esan eta, motibo desberdinak tarteko, asteartez joatea egokitzen bada, haurraren bu-

ruko eskema guztia hankaz gora jar daitezke. Alegia, ez eman ziurtasunik ezer ziurra ez dagoenean, adierazi bidea ez dela erraza izango, nahi baino luzeagoa izan daitekeela eta elkarrekin egingo dutela.

Zer pentsatua eman dit eta parekotasuna topatu diot oraintxe bizi dugun osasun larrialdiarekin. Ziurtasunik gabeko egoera da eta gero eta haserreago gaude, behinola politikariek egindako promesak ez direlako betetzen ari. Txertoarekin dena konponduko zela esan ziguten eta segur aski guk ere hori sinistu nahi genuen eta hementxe gaude, kasketa kolektiboarekin, inori eta ezer sinisteko indarrik gabe, nekatuta, nazkatuta eta beldurtuta. Ulergarria. Eta gobernatzen gaituztenek setatsu segitzen dute, txertoa eta kalean

musukoa, kalean musukoa eta txertoa, olatua berez jaisteko zain.

Sagarduik ez omen daki zein den hau guztia konpontzeko tekla. Guk ere ez, baina gu ez gara osasun kolektiboaren arduradun politikoak. Gu herritarrak gara, egoera larri baten aurrean gaudenak, bidean maite ditugunak, osasuna eta pazientzia galdu ditugunak. Erantzukizun politikoak exijitu beharko dira, hain muturrekoa den egoera ahalik eta txukunen eta zentzudunen kudeatzeko gaitasuna duten agintariak merezi ditugu. Baina akaso badugu garaia ziurtasunik gabeko kulunka honen kontzientzia hartzeko. Larria da, luze joango da, adituek salbatuko gaituzte eta elkarri eskua emanda egin beharko dugu bidea. •